285. zk.
Bigarren aroa
Irailak 15
2016

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

# Hiriak bizi izan duen dramarik handiena

**Kirolak**
Jon Tenari elkarrizketa
9. orrialdea

**Elkarrizketa**
Argitze
10. orrialdea

3 Berria Euskara ikasteko aukera zabala Irunen.
4- 5 Erreportajea: Duela 80 urte milaka irundarrek hiritik ihes egin zuten
6-7 Erreportajea Expogrow 2016
8 Kirolak Karatea Irunen
11 Haurrenn Lanak Irungo La Salle LH1
12 Gazteen lanak El Pilar LH3
13 Gaztea Gazteartean
14 Gazte infor

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780
CASER ANAKA

Caser RESIDENCIAL
GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak
Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169
CASER BETHARRAM

## Argazki lehiaketa

**Ane Arozena**
San Martzial, Txingudi Badiako zaindaria.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

# Irun atzo Irun gaur

IUA: 27435

## Cesar Figuerido kalea

Artia kanaletik irten, eta izen bereko ibilbidearen erdialdean zehar, Teodoro Murua kalean amaitzen da. 1975eko abenduaren 2ko Osoko bilkuran Gobernazio Batzordearen proposamenez izena jarri zioten.

Cesar Figuerido Gelbenzu, musika irakasle baten semea, 1877an Cuencan jaio zen. Bere bizitzako denbora gehiena Irunen igaro zuen, hala ere, 6 urterekin iritsi baitzen. Laster sentitu zuen musikarekiko zaletasuna, eta biolin jotzaile eta musika konpositore bikaina izatera heldu zen, baita Irungo Musika Akademiako irakasle ere. Beranduago, Donostiakoaren zuzendariorde ere bai.

Instrumentu irakasle gisa 1900 urte inguruan hasi zen. Sei urte geroago, Ramon Iglesiasekin batera, Sociedad Filarmónica Irunesa sortu zuen.

1908an Udal Bandaren zuzendari izendatu zuten. Donostiako Orkestra Filarmonikoaren sortzailea ere izan zen. Haren jarduera, hala ere, ez zen musikara bakarrik mugatzen, izan ere, idazle gisa maiz kolaboratzen zuen "El Eco de Irún" astekarian.

1938an arrakasta handia lortu zuen Rameau Elkartearen VIII. kontzertuan, Baionan. Hainbestekoa izan zen arrakasta, kritika frantsesak Sarasaterekin konparatu ere egin zuela. Auzoko herrialdeko gobernuak Irakaskuntza Publikoko Ofizial ere izendatu zuen.

Bere konposizio aipagarrienak "Ezpatadantza" eta "Ejercicios prácticos para Violín" izan ziren, besteak beste.

Iturria: José Monje.

*Irungo kaleen izenak*.


## Irunero

**Erredakzioa eta maketazioa:**
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
**Euskara zuzentzailea:**
Unai Oiartzun
**Publizitatea:**
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
**Argitaratzailea:**
837 comunicación y publicidad S.L.
**ISSN:** 1134-0606
**Lege gordailua:**
SS-230-94.
Tel: 693 828 099



Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

# Euskara ikasteko aukera zabala dago Irunen

## Euskaltegietan izena eman daiteke dagoeneko

Aitzakiarik ez du Irunen euskara ikasi edo landu nahi duenak. Batetik, hiru euskaltegi daude hirian: Udal Euskaltegia, Herri Jakintza eta AEK. Maila guztietako taldeak, eta ikastaro bereziak eskaintzen dituzte. Gainera, euskara ikasteko bekak, eta langabeentzako doako ikastaroak proposatzen ditu Irungo Udalak, akuilu gisa.

Zabalik daude Irungo euskaltegietan izena emateko epeak. Udal Euskaltegian irailaren 5ean hasi zen, eta irailaren 21ean amaituko da. Ohiko ikastaroak eskaintzeaz gainera, ikastaro talde bereziak antolatuko ditu Udal Euskaltegiak: HABE azterketa ofizialak prestatzekoak, gurasoei zuzenduak, IVAP administrazio publikoko euskal erakundeari begirakoak, mintza taldeak eta beste herrialde edo erkidegoetatik datozenentzat antolatzen diren AISA ikastaroak. Talde berezi horietako saioak arratsaldetan izango dira.

Iazko tasa berari eutsiko dio Udalak. Hortaz, zenbat eta euskara eskola gehiago hartu, orduan eta merkeagoa izango da euskaltegiko matrikularen prezioa, ordu bakoitzeko. Euskara ikasleak saritzeko modua dela azpimarratu du Jaione Campo Udal Euskaltegiko zuzendariak: "Hizkuntza bat ahalik eta azkarren ikasteko, ahalik eta ordu gehien eskaini behar zaizkio". Udal Euskaltegiaren eskaintzan interesa duenak Urdanibia plazako egoitzan egin dezake matrikula. Bestela, informazio gehiago eskuratzeko, 943 505 273 telefono zenbakira dei dezake, edo euskaltegi@irun.org helbide elektronikora idatzi.

**Beste bi euskaltegi homologatu daude Irunen**

Irungo AEK eta Herri Jakintza euskaltegietan ere, maila guztietako taldeak osatuko dituzte. Gainera, ondorengo ikastaro bereziak eskaintzen dituzte: HABE agiri ofizialak eskuratzekoak, hizkuntz eskakizunak prestatzekoak (IVAP, Osakidetza), irakasleei zuzendutakoak (IRALE), gurasoentzakoak, on-line ikastaroak, autoikaskuntzakoak, mintza taldeak, merkatarien taldeak eta erabilerari begirako saio bereziak.

> "Hizkuntza bat ahalik eta azkarren ikasteko, ahalik eta ordu gehien eskaini behar zaizkio"
>
> **Jaione Campo, Irungo Udal Euskaltegiko zuzendaria**

Irungo AEK euskaltegian izena emateko epea irailaren 12tik 29ra izango da. Legia kaleko 6.ean dagoen egoitzara hurbil daiteke matrikula egiteko, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30etara. Zalantzak argitzeko, 943 628 834 telefonoa dago edonoren esku. Herri Jakintzan, epea irailaren 7tik 27ra izango da. Interesa duen edonor Nafarroa hiribideko 13. zenbakian dagoen euskaltegira hurbil daiteke, 11:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 19:00etara. 943 635 266 telefonora deitu edo herrijakintza@gmail.com posta elektronikora ere idatzi daiteke.

**Udalaren laguntzak, euskara ikasteko**

2015-2016 ikasturtean euskara ikasten aritu zirenek, euskara ikasteagatik udalak ematen dituen bekak eskatzeko epea zabalik dute. Urriaren 6ra arte egin dezakete eskaera, irun.org web gunean, edo nahi izanez gero, HAZeko autozerbitzu terminaletan (San Martzial kalea, 2). Irun Txartela edo beste ziurtagiri elektronikoren bat erabili beharko dute horretarako. Udalak 58.569 euroko diru poltsa bideratzen du beketarako, eta ikasle bakoitzaren beka, matrikularen %100era ere heldu daiteke. "Euskara ikasteko ahalegina egin duenari lagundu behar diogu", baieztatu du Josune Gomez Euskara arloko ordezkariak.

Bekez gainera, euskara doan ikasteko aukera eskaini die Irungo Udalak langabeei. Lannahi programaren bost txanda eskainiko ditu udalak 2016-2017 sasoian, hiru ikasturtean zehar, eta beste bi udaran. Ikasturtean zehar, lau orduz ariko dira ikasleak goizeko txandan, eta hiru orduz arratsaldekoan. Udaran, lau ordu eta laurdeneko txanda izango da, goizez bakarrik. Izenematea txanda bakoitzerako egin beharko da, internet bidez. Lehen txandarako irailaren 5etik 21era eman daiteke izena, irun.org web gunean edo HAZ bulegoko autozerbitzu terminaletan.

# Hiriak bizi izan duen dramarik handiena

## Duela 80 urte jaso zuen Irunek II.Errepublikaren aurka altxatutakoen erasoa
## Sute handia jasan zuen, eta ia hutsik gelditu zen, populazioaren ihesaren ondorioz

Gaur egun ekialde hurbiletik Europara doazenak bezala, duela 80 urte Bidasoa ibaiaren beste aldera ihes egin zuten milaka irundarrek. Errefuxiatuak izan ziren, egungo siriarren moduan. Exodo hura gogoratzeko ekitaldiak egin dituzte irailaren hasieran Abenida zubian, garaiko nazioarteko zubian. Bertatik pasa baitziren irundar gehienak, arropak, etxetresnak eta altzariak gainean hartuta. Gerratik ihesi utzi zituzten etxeak. Batzuek, ezin izan zuten inoiz bueltatu.

II.Errepublikaren aurka altxatu zen Espainiako armadaren zati handi bat, 1936ko uztailaren 18an. Estatu kolpe bat izan zen, herrialdea gobernatuko zuen diktadura militarra ezartzeko helburua zuena. Huts egin zuen, ordea, ezkerreko mugimenduen eta Errepublikaren aldekoen erresistentziaren aurrean. Hiru urteko gerra luzearen hasiera izan zen. Garaiko irundarrek ez zuten halakorik espero. Aitor Puche historialariak azaldu du, hasieran behintzat, "normaltasunez" hartu zutela altxamendua: "Kontuan hartu behar da, garai hartan, matxinadak ohikoak zirela". Kezka, edo interesa, mugimendu politikoetan eta sindikaletan izan zuten, batez ere.

Irunen, Errepublikaren aldeko ezkerreko alderdiak ziren nagusi. "Horrek balio du ulertzeko zer nolako erresistentzia topatu zuten Nafarroatik heldu ziren erasotzaileek", adierazi du Puchek. Mola jeneralak bidalita, Iruñetik heldu ziren altxamendu militarraren aldekoak, gerrako lehen asteetan, Irun konkistatzeko asmoz. Helburu nagusietako bat zen haientzat, muga isteaz gainera, Errepublikaren aldekoen iparraldeko eremua isolatuta uzteko aukera emango zielako. Herri miliziak antolatu zituzten Irunen, etsaiari aurre egiteko asmoz. "Gerra egoera agerikoa izan zen orduan. Irungo herriaren gehiengoak bat egin zuen defentsarekin. Erresistentziarako grina bizirik zegoen", baieztatu du Nicolás Aguirrek. Zortzi urte zituen garaian.

### Batailaren nondik-norakoak

Endarlatsako zubia lehertu araztea izan zen milizianoek hartutako lehen erabakietako bat. Asturiastik etorritako artilleroek parte hartu zuten ekintzan. Berako errepidetik zetozen tropei bidea isteko modua izan zen. Era berean, Irunen inguruko mendietan defentsa prestatzeko denbora irabazi zuten. "Nahiko ondo antolatu ziren, zituzten mugak kontuan hartuta. Eraginkorrak izan ziren, etsaiari eustea lortu baitzuten", aitortu du Nicolás Aguirrek. Herritar soilek defendatu zuten Irun, ekipamendurik gabe, arma eta munizio eskasekin, eta estrategia eta diziplina militarra ezagutuko zituzten buruzagien falta nabariarekin.

Bandoen arteko diferentzia erabakigarria izan zen, hain zuzen ere. Prestakuntzan eta materialean alde ikaragarria zuten milizianoek erasotzaileekiko. Espainiako armada, falangistak eta errekete karlistak izan zituzten aurrean. Ondo ekipatuta, armatuta eta militar profesionalen gidaritzapean. Gainera, España eta Almirante Cervera gerra itsasontzien eta hegazkinen babesa izan zuten. Azken horien soinu beldurgarria gogoratzen du Nicolás Aguirrek: "Bonbardatzen hasi ziren, eta horrek zeharo ikaratu gintuen irundarrok. Sekula halakorik ikusi gabeak ginen". Beste soinu bat ere gogoratzen du Aguirrek. Errepublikaren aldekoek, Guadalupeko fuerteko kanoietatik jaurtitako obusenak. Oiartzun aldera ari ziren tiroka, Beorlegui koronelaren tropen kontra.

"Borrokarik latzenak Irunen inguruko mendietan izan ziren", argitu du Aitor Puche historialariak. Beorleguiren tropek pixkanaka hartu zituzten Pikoketa, Erlaitz, eta Pagogaina, San Martzialera bidean. Bidasoa ibaiaren ertzean, haien kideek Endarlatsako oztopoa gainditzea lortu zuten, Tren Txikito ezagunaren trenbidea erabilita. Handik egin zuten aurrera, tanke, blindatu eta guzti. Biriatuaren parean topatu zuten erresistentzia gogorra. Ibaiaren ertzetako batean jendea elkarri tiroka ari zen bitartean, bestean, ikuskizunaz "gozatzen" ari zirela gogoratu du Nicolás Aguirrek: "Eserlekuak eta prismatikoak alokatu zituzten".

San Martzial mendiaren magaletan gora egiteko, zailtasun handiak izan zituzten. Altuerak eta aldapa pikoak ematen duen abantaila zuten milizianoek, eta lubakiak eraikita, gau eta egun eutsi zieten Saroiatik eta Puntta aldetik zetozen erasoei. "San Martzial galtzea erabakigarria izan zen. Historikoki ere hala izan da. San Martzial erortzearekin, Irunenak egin du", aipatu du Puchek. Irailaren 2an gertatu zen hori. Etsaia gainean zutela ikusita, hiritarrek ihesari ekin zioten. Abuztuaren erdi aldeaz geroztik alde egiten hasiak ziren irundarrak, pixkanaka. Irailaren hasierako egunetan, ordea, arrapaladan gurutzatu zituzten zubiak.

**Memoria historikoa helburu**

Gerraren ondorengo diktadura frankistaren ondorioz, duela 80 urte gertatutakoaren alderdi asko isilarazita egon izan dira urtetan. Istorio horiek azalarazteko, memoria historikoa berreskuratzeko lana ezinbestekoa izan da. Irunen, Nicolás Guerendiain Errepublikanoen Elkarteak lan handia egin du zentzu horretan. “Desagertutako senideen inguruan informaziorik ez zuen jendeari laguntzen ahalegindu gara”, azaldu du Tino Zamora elkarteko presidenteak.

Memoria historikoaren gaian, Aiala Oronoz ikertzailea aritu da lanean. 2013-2014an, Gerra Zibilaren eta gerraosteko errepresioaren inguruko testigantzak bildu zituen: “Batzuek hitz egiteko gogoa zuten, fusilatutako edo preso egondako senideak zituztelako. Beste batzuek uste dute haiek dakitena edo gogoratzen dutena ez dela garrantzitsua”. Irungo Udalarekin lortutako akordio bati esker, elkarrizketa horiek artxiboan daude, edonoren esku. Elkarrizketek beste galdera batzuk sortu zituzten, eta haien atzetik, beste ikerketa batzuk egiten ari dira. “Gure helburua da Irunen izandako errepresioaren mapa bat osatzea”, baieztatu du Oronozek.

**Ihesa eta sutea**

Agustin Prieto Behobiako errepidean bizi zen, eta San Martzial aldera ematen zuten leihoetan koltxoiak eta burukiak jarri zituztela adierazi du: “Galdutako balak heltzen ziren”. Bederatzi urte egin zituen irailaren lehenean, muga zeharkatu zuen egunean. Behobiako zubitik pasa zen, familiarekin: “Cinzanoren kartel handi bat zegoen, eta tiroek bertan nola jotzen zuten gogoratzen dut”. Nicolás Aguirre Behobien zegoen ordurako, lagun batzuen etxean. “Munduko egunkari nagusietako kazetariak hemen zeuden, Irungo guduaren nondik-norakoak kontatzen”, azpimarratu du.

Santiagoko Abenida zubitik ere, milaka izan ziren alde egin zutenak. Hendaiako geltokira doan etorbidean, edo biltegi moduko batzuetan pilatuta gelditu ziren, maletak eta gainerako tresnak alboan zituztela. Hendaiatik, Irun hiria sutan ikusi zuten, irailaren 4an. Etsaiaren esku utzi aurretik, miliziano anarkisten multzo batek lur errearen taktika aplikatzea erabaki zuen. Hiriari su eman zioten, puntu ezberdinetan. Tamaina handiko sutea izan zen, eta hiriaren erdi guneak jasan zituen ondoriorik larrienak. “Ondare ikaragarria galdu zen”, onartu du Puchek. Colon ibilbideko eta inguruko eraikin dotoreak kiskali egin ziren. Aguirrek iradoki du hiriko burgesia eta elitea izan zituztela jomuga: “Urdanibia plaza ez zuten ukitu”.

**Hutsetik hasi**

Exodoaren ondorioz, populazioaren galera ere ikaragarria izan zen. 18.500 biztanle zituen Irunek 1936an, eta 1937an, jende asko bueltatu ondoren ere, 9.000 baino ez ziren. “Batzuek senideak eta lagunak zituzten Hendaian, Urruñan edo Donibanen. Bizilagunen arteko lotura hori bazegoen aspalditik. Muga ez baita sekula muga izan, bidasoarrontzat”, aipatu du Aitor Puchek. Batzuk Lapurdin gelditu ziren, beraz. Beste batzuk Frantziako estatuko beste lekuetara eraman zituzten. Agustin Prietoren familia Mazamet-en izan zen. “Ganbara batean bizi izan ginen, oso baldintza txarretan. Janaria komentu batean ematen ziguten”, gogoratu du. Puchek azaldu du errefuxiatuena arazo larri bilakatu zela Frantziako gobernuarentzat.

Errepublikaren alde borrokan jarraitu nahi zutenek, eta askotan, haien familiek, Bartzelonarako bidea hartu zuten. Agustin Prieto bertan izan zen, Mazamet-eko egonaldiaren ondoren. Valentziatik ere pasa zen gero, gerra amaitu arte. Nicolás Aguirre, aldiz, aste batzuen buruan bueltatu zen Irunera, beste hainbat familiarekin batera: “Etxeak erreta edo okupatuta topatu zituen jende askok”. Gerra amaituta itzuli zen Agustin Prieto, Valentziatik, merkantzia tren batean, hiru eguneko bidaia eginez: “Etxebizitzarik eta lanik gabe, zerotik hasi behar izan genuen”.

Errepresaliak izan ziren. Salaketak, atxiloketak eta fusilatzeak “Zorigaiztoko harrobi bat dago Beran. Han fusilatzen zuten jendea”, adierazi du Nicolás Aguirrek. 1940ko hamarkadaren hasierakoak izan ziren urterik gogorrenak, Aguirreren ustez: “Erbesteratutakoak bueltatu zirenean, populazioak gora egin zuen, eta gosea pasa genuen orduan. Gainera, Bigarren Mundu Gerra ibaiaren beste aldean genuen. Egonezina handia izan zen urte haietan”. Bizi baino, jendeak biziraun egin zuela adierazi du: “Ezin genien konkistatzaileei aurre egin. Jateko lan egin beharra zegoen”.

# Bosgarren aldiz egingo dute Expogrow

## Ficoban izango da azoka, irailaren 16tik 18ra

Kolore berdea eta usain sarkorra hedatuko dira Ficoba erakustazokan, irailaren 16tik 18ra. Estatu osoko eta atzerriko bisitariak erakarriko ditu Expogrow-k, kalamuaren azoka handiena baita Europan. 5.000m²-ko eremua hartuko du Ficobako pabiloietan. "Aurten 900 m² gehiago behar izan ditugu, eta laugarren pabiloia hartu dugu", adierazi du Fernando Novi azokako zuzendariak. Kanpoko aparkalekuan, beste 7.000m² izango dira. 175 erakusketari egongo dira, eta sektoreko 700 profesional inguru bilduko dira. Bosgarren edizioa izango da, eta ospatzeko, berezitasunak izango ditu.

Iazko lehen esperientziaren ondoren, B2B (Business to Business) sesioak emango dio hasiera 2016ko Expogrow azokari. Sektoreko profesionalen arteko hartuemana eta harreman komertziala sustatzeko saioa izango da. Ostiralean, irailaren 16an egingo dute, 9:30etatik 14:30etara. Bost ordu horietan zehar, Ficoba profesionalentzat bakarrik egongo da zabalik. Bilera areto bat atondu dute aurten, elkarrizketak errazteko. Fernando Novi zuzendariak alde enpresarial hori azpimarratu du: "Ez dugu ahaztu behar Expogrow azoka profesionala dela. Bisitariak etortzea ondo dago, baina garrantzitsuena enpresen lana da".

B2B sesioa amaituta, Ficobak ateak zabalduko ditu, publiko orokorrari sarbidea emanez, ostiralean 14:30etatik aurrera. 20:00ak arte ibili ahal izango dira bisitariak pabiloietan. Larunbatean eta igandean ere, 11:00etatik 20:00etara zabalduko dituzte pabiloiak. Horietan, hazi ekoizleak, banatzaileak, eta orokorrean, kalamuarekin lotutako produktuak eskaintzen dituzten enpresen, elkarteen eta bestelako kolektiboen stand-ak aurkitu ahal izango dira. Egun bateko sarrerak 10-15 euro balioko du. Bi eguneko abonuak 20-23 euro, eta hiru egunekoak, 25-28 euro.

Txartelak kanpoko aparkalekuko gunera sartzeko aukera emango du. Bertan egingo dituzte ikuskizun gehienak. Berritasun nagusia, haize tunela izango da. Parakaidismoaren sentsazioa eragiten duen simulagailua da. Aire fluxu baten bitartez, hiru metroko altueran hegan egingo dute probatzera animatzen direnek. Monitoreek oreka mantentzen, jira egiten, edo gora eta behera joaten erakutsiko diete. Arropa eta betaurreko bereziak erabili beharko dira.

> "Ez dugu ahaztu behar Expogrow azoka profesionala dela"
>
> **Fernando Novi, Expogrow azokako zuzendaria**

Glassblowing erakustaldia ere egingo dute aparkalekuan. Urtutako beiran aire burbuilak sartuz pieza ezberdinak sortzeko artea da, Ameriketako Estatu Batuetan zabaldua. Bestalde, Exprogrow sarien banaketa ere egingo dute. Parte hartzaileak beraiek izango dira epaile, lehiakideek kategoria ezberdinetan egindako lana bozkatuz. SFDK rap taldeko Zatu izango da aurkezlea, sarien banaketan. "Ikusgarria izango da. Jendea etortzera gonbidatuko nuke", aipatu du Javier Gonzalez Expogrow azokako bozeramaileak. Monkey Dub Corner gunean, estilo jamaikarreko musikarekin girotuko dute aparkalekua.

> "Kalamuaren aktualitatean eta droga politiketan gori-gori dauden gaiak hautatu ditugu"
>
> **Joseba del Valle, Renovatio Fundazioa**

**Jende asko erakarriko dute kontzertuek**

Kontzertu nagusiak ere kanpoko gunean egingo dituzte, karpa handi batean. Ostiralean eta larunbatean izango dira emanaldiak, 19:00etatik aurrera. "Gure bosgarren urteurrena delako, oihartzun handia duten artistak hautatu ditugu. Aurreko edizioetako ildoa jarraitzen dute, dena den", onartu du Fernando Novik. Ostiralean, irailaren 16an, Biga Ranx eta Scarecrow helduko dira Frantziatik. Lehenengoak musika jamaikarra lantzen du, eta bigarrena blues-hip hop estilo berritzailea jorratzen duen taldea da. Tomasito flamenko artista andaluziarra, eta Inna Modja, Maliko soul abeslaria ere ariko dira.

Larunbatean, estatuko hiru talde egongo dira taula gainean. Muchachito rumba eta funk abeslari kataluniarrak *El Jiro* disko berria aurkeztuko du. El Languik ere disko ekarriko du besapean, *Hola* izenekoa, zineman, irratian, literaturan eta telebistan ezagun egin ondoren. Ogun Afrobeat, Akin Dimeji Onas Lagosko artistak zuzentzen duen taldea da, Yoruba kulturaren eraginak dituen afrobeat talde bakarra Espainian. Sara Lugo reggae eta soul artista alemaniarrak ere kontzertua eskainiko du. Dj Don Cornelius eta Dj Victor Santanak borobilduko dituzte emanaldiak.

**Osasuna eta feminismoa, Kalamuaren Foroan**

Expogrow-k eta Renovatio Fundazioak antolatuta, Kalamuaren Nazioarteko Foro Soziala egingo dute azokarekin batera. Ficobako auditorioan izango da, ostiralean eta larunbatean. Doan sartu ahal izango da, eta ez da aldez aurretik izena eman beharko. Renovatio Fundazioko Joseba del Vallek azaldu du egitarau zabala izango duela foroak, landuko dituen gaien adinakoa: “Kalamuaren aktualitatean eta droga politiketan gori-gori dauden gaiak hautatu ditugu”. Edonola ere, bi izango dira ildo nagusiak. Batetik, kalamua medikuntzaren arloan. Azken urteotan egin izan diren aurrerapenak eta patologia ezberdinen aurrean kalamuak dituen aplikazioak aztertuko dituzte.

Beste gai nagusia, emakumea eta drogak lotuko dituena da. REMA (Red de Mujeres Anti-Prohibicionistas) elkarteak gaiaren inguruko batzar irekia antolatu du. Genero ikuspegia landuko dute, eta arloan emakumeek sufritzen dituzten sexismoa eta diskriminazioa ezabatzea izango dute helburu, kalamuaren kulturan eta industrian emakumezkoek parte hartze aktiboa izan dezaten.

DOCTOR HOUSE
Etxekologo

MOTA GUZTIETAKO LAN ETA KONPONKETAK ETXETAN NAHIZ DENDETAN

- Arotzeria
- Margolanak
- Zaharberritze lanak
- Lorategiak
- Iturgintza
- Sarrailak
- Elektrizitatea
- Instalazio zein muntaketak
- Garbiketa bereziak eta abar

DAVID:
655 70 98 93

# Karatea, bizitzarako

*Kirol lehiaz harago, karatearen balioak hedatzeko lanean ari dira eskoletan*

Kirol olinpiko izendatu dute karatea, Tokio 2020rako. Kirol lehiaketa nagusian presentzia izango du, beraz, Olinpiar Jokoak haren sorlekuan, Japonian jokatuko diren urtean. Orain arte izan ez duen dimentsio bat lortuko du horrela. Beldur pixka bat ere badago, ordea, karatearen sektore tradizionalenetan, bere esentzia kolokan egon daitekeelakoan. Horri eusteko ardura dute mundu osoko karate eskoletan. Irunen, Bunkai Karate da erreferente nagusia, 30 urte baino gehiagoko ibilbidea baitarama. Vidal Ogallar maisua izan da arduraduna urte guzti horietan, baina lekukoa pasako du orain.

"Zeinen ondo usaintzen duen!", esan zion semeak Javier Manzanori, Bunkai karate klubaren egoitzara eraman zuen lehen aldian. Hunkitu egin zen, txikitan ere horixe pentsatu zuela gogoratzerakoan: "Hogeita hamar urtetan, gauza batzuk ez dira batere aldatu". Vidal Ogallar izan zuen sensei edo maisu, eta orain, haren lekua hartuko du, elkartearen buru, Xabier Lizarribarrekin batera. Bigarrenak ere urteak daramatza karatean, zortzi urterekin, anaiarekin eta lehengusuarekin hasi zenetik: "Oso gazteak izanagatik ere, ondo bereizten genuen, beste borroka-arte batzuekiko". Manzano judoan hasi zen, baina laster pasa zen karatera, gehiago betetzen zuelako. "Oso haur urduria nintzen, eta karateak baretzeko balio izan zidan", azaldu du.

> "Karatearen balioak barneratu egiten ditugu, gure baitan geratzen dira, eta bizitzari begiratzeko betaurreko bihurtzen dira azkenean"
>
> **Javier Manzano**

Denbora tarte batzuez karatea utzi izan dute biek. Beti bueltatu dira, ordea. "Karateak harrapatu egiten baldin bazaitu, ez zaitu askatzen. Bizimodu bihurtzen da", argitu du Vidal Ogallar beteranoak. Hiruek baieztatu dute kirol jarduera hutsa baino gehiago dela karatea. Balio sendo batzuk transmititzen dituela, gero bizitzan, orokorrean, aplika daitezkeenak. Javier Manzanok zerrendatu ditu karatearen oinarrizko arauak: "Errespetua, leialtasuna, saiatua izatea, indarkeria baztertzea. Balioak barneratu egiten ditugu, gure baitan geratzen dira, eta bizitzari begiratzeko betaurreko bihurtzen dira azkenean".

> "Karatearen funtsa topatzeko, sakonago miatu behar da"
>
> **Xabier Lizarribar**

**Ez dadin kirol hutsal bilakatu**

Bizitzari begiratzeko modu hori da karatearen maitaleek galdu nahi ez dutena. Eta horregatik daude, sektore tradizionalenak, Olinpiar Jokoen beldur. Xabier Lizarribarrek uste du, beharbada, karateak emango duen irudia dela aldatuko dena: "Taekwondoarekin eta judoarekin gertatu da, orain beste edozein kirol diziplinen moduan ikusten direla. Egia da karatearen funtsa topatzeko, sakonago miatu behar dela". Karate eskoletan transmititzen dute karatearen esentzia, maisuen lanari esker. "Karatearen balioen bidez, pertsonak formatzen ditugu, ez karatekak bakarrik", aipatu du Vidal Ogallarrek.

Irailan hasi dira ikasturte berriarekin. Sei talde daude, adin ezberdinetakoak. Haurrekin hasten dira, txikitatik karatearen bidea erakusteko asmoz. Dena den, haurrekin lan egitearen zailtasuna azpimarratu du Javier Manzanok: "Zuk baso handi bat duzu buruan, eta haurrak bidearen ertzeko loretxoekin dabiltza oraindik. Horretarako, baliagarria da izan zinen haurra gogoratzea". Hasiberriak diren helduekin ere lan egin izan du Manzanok, eta kasu horietan, barruan duten haurra azaleratzen dela adierazi du: "Haien beldurrak eta konplexuak alde batera utzi behar izaten dituzte".

Astean bi entrenamendu egiten dituzte, oso egituratuak, eta karatearen tradizioari lotutakoak. Katek, koreografiak diruditen mugimenduen segidek, pisu handia dute horietan. Bunkai izenak ere horiei egiten die erreferentzia, kataren analisia baita haren esanahia. Hirugarren saio bat egiten dute gero, librea, lehiaketak edo azterketak prestatzeko. Garrantzi handia ematen diote norberak bere kabuz entrenatzeari. Xabier Lizarribarrek aitortu du behin baino gehiagotan joan izan dela, bakarrik, klubeko giltza hartuta, entrenatzera: "Modu horretan izaten dituzun sentsazioak, beste kirol gutxitan lortu ditzakezu".

12-16 ikasleko taldeak izaten dituzte, normalean, Bunkai-n. Badute jende gehiago hartzeko espazioa, baina ez dute dojo edo entrenamendu lekua bete nahi. "Hasieran, Okinawa irlan, maisu bakoitzak ikasle bati transmititzen zizkion jakintzak. Gaur egun hori pentsaezina da, baina ahalik eta denbora gehien eskaini nahi diogu ikasle bakoitzari", azaldu du Javier Manzanok. Arantzateko jauna kaleko seigarrenean dagoen egoitzatik has daiteke, interesa duena, karatearen funtsaren bila.

JON TENA, Real Unioneko jokalaria:

# "Atezain guztiengandik ikasten da zerbait"

Real Unionen eman zituen lehen urratsak, futbolaren munduan. Baina infantil mailan zegoenean, Realaren deia jaso eta Zubietarako bidea hartu zuen. Filialeraino iritsi zen, eta bertan bi denboraldi egin ondoren, Stadium Galera bueltatu zen, Realak utzita. Bi denboraldi egin ditu horrela, eta hirugarrenari ere ekin dio. Real Unionen atearen zaindaria da Jon Tena, 23 urteko irundarra.

"Ligaren hasiera zaila izan da guretzat"

"Aurtengo proiektua ere polita zela iruditu zitzaidan"

**Urte batzuk egin dituzu Zubietan, Realaren harrobian. Ikasteko balio izan dizu?**
Bai, Realean asko ikasi nuen, baina hemen ere bai, momentu honetan ikasten ari naiz. Oso gustura nago Real Unionen, egia esan.

**Unionen atezain onak izan dituzu ondoan. Haiengandik ere jasoko zenuen.**
Beti ikasten da zerbait, atezain guztiengandik. Lehenengo urtean Otermin izan nuen ondoan, iaz Txusta. Aurten Ignacio Otañorekin ari naiz, gaztea da, gauza berriak ekarri ditu, eta aukera baliatzen ahalegintzen ari naiz. Saiatzen naiz bakoitzak duen onena barneratzen.

**Iaz ez zenuen jokatzeko aukera handirik eduki. Hala ere, jarraitzea erabaki duzu. Zergatik?**
Gehiegi jokatu ez nuen arren, esan behar dut eroso egon nintzela. Aurtengo proiektua ere polita zela iruditu zitzaidan. Gainera jakin nuen Txustak ez zuela jarraituko, eta segitzea erabaki nuen.

**Bazirudien Aitor Zulaikak jarraituko zuela aulkian, baina Realaren organigraman izan diren aldaketen ondorioz, Santana duzue entrenatzaile. Ezustekoa izan da?**
Ez. Aldaketak hobetzeko helburua baldin badu, gu gustura gaude. Gainera, nik laugarren urtea dut jada Asier Santanarekin, Realean nengoen garaitik ezagutzen dut.

**Esango zenuke aldaketa handia dagoela Santanaren eta Zulaikaren artean?**
Entrenatzaile bakoitzak lanerako modu ezberdinak ditu, eta Santanaren eta Zulaikaren artean ere, aldeak badaude. Baina gu berdina egiten saiatzen gara.

**Galdu gabe bete duzue ligako lehen hilabetea. Partida bakarra irabazi duzue, ordea. Gehiago nahi zenuten?**
Kontuan hartu behar da ligaren hasiera zaila izan dela guretzat. Hala ere, puntuak atera ditugu, eta hori ona da. Aurreko bi urteei begiratuta, konturatuko gara puntu gutxi atera genituela hasieran.

**Nola ikusi duzu taldea? Zertan hobetu behar duzue?**
Nik uste dut ondo ari garela, bai entrenatzen, bai jokatzen. Jarraipena eman behar diogu, eta denborarekin, emaitza hobeak ailegatuko dira.

**Aurreko urteetako taldearen antzekoa da aurtengoa . Jokalari batzuek denbora daramate elkarrekin jokatzen. Hori lagungarria da?**
Bai, ondo ezagutzen dugu elkar, eta aurten etorri berriak direnak ere, azkar egokitu dira. Anbizio handia dugu, egia esan.

**Aurreko bi urteetan bezala, play off-eko lehian egoteko gai ikusten duzu taldea?**
Zalantzarik gabe. Gure helburua hori da, eta ahaleginak egingo ditugu.

Yoana Nicolás Ginés, Argitze Zentroko arduraduna:

# “Nahi duguna da pertsona ahalik eta funtzionalena izatea, ahalik eta denbora luzeenean”

Yoana Nicolás Ginés 27 urteko irundarra da. Aspaldi sortu zitzaion psikologiarako bokazioa, haurra zenean. Amonak alzheimerra eduki zuen, eta ez zuten egoerari aurre egiteko laguntza egokirik topatu. Orduan pentsatu zuen garuneko eritasunak dituztenentzako zentroa eratu nahi zuela, gaixoak eta haien senideak bakarrik sentitu ez zitezen. Argitze zentroa irekitzea urrats handia izan zen Yoanarentzat, eta gaur egun, erabiltzaileei kalitate handiko zerbitzua eskaintzeko formatzen jarraitzen du.

**Noiz sortu zen Argitze?**
Urtarrilean hiru urte egingo ditu. Eskuhartze neuro psikologikoan espezializatuta dago. Batzuk inolako kalterik ez dutela egiaztatzeko hurbiltzen dira, eta beste batzuk, endekapenezko gaixotasun neurologikoak (alzheimerra, parkinsona) edo garuneko beste gaitzak (iktusa, traumatismoak, anoxiak etab.) dituzten erabiltzaileak dira .

**Zeintzuk izaten dira helburuak?**
Erabiltzailearen araberakoak dira helburuak. Endekapenezko gaixotasun neurologikoak edo dementziak baldin badira, helburua da narriadura geldiaraztea. Garuneko beste gaitzetan, pertsona birgaitzea izaten da asmoa. Prebentzioa helburu dutenen kasuan, saiatzen gara ahalik eta gehien lan egiten, eta ahalmen kognitiboak indartzen.

Dena den, kasu guztietan, nahi duguna da pertsona ahalik eta funtzionalena izatea, ahalik eta denbora luzeenean.

**Nolakoak izaten dira tailerrak, taldekakoak edo bakarkakoak?**
Bietakoak daude. Taldeka soziabilitatea, emozioak etab. lantzen dira. Bakarkako zerbitzuan, azterketa neuropsikologiko osoa egiten da, familiarekin lan egiten da, eta helburu zehatzak jartzen dira. Guzti hori, pertsonak ahalik eta funtzionaltasun handiena izan dezan .

**Jende asko joaten da prebentziorako?**
Zoritxarrez, ez. Egia da kasuak gero eta lehenago deribatzen direla, baina arazoa da jende gehiena ez dela prestatua egoten, eta erabat etsita iristen direla zentrora. Kasu horretan egin daitekeen lana oso mugatua da.

**Sendabiderik ez duten gaixotasunak diren arren, egonkorragoak izan daitezen lan egin daiteke, ezta?**
Hemen ez diogu inori ziria sartzen. Dementzia baten aurka, gerra galdu egiten da beti. Baina denbora irabaz daiteke, hasieratik lan egiten denean, batez ere.

**Erabiltzaileentzat jarduera onuragarria da, gainera.**
Hala da. Hasteko, etxetik ateratzen dira, zentrora etortzen dira, errutina bat hartzen dute...Hori, soilik, laguntza handia da. Gainera, bizitzen ari diren egoeraren jabe direnekin, frustrazio maila kontrolatzeko lan egiten dugu. Adibidez, asko sufritzen dute konturatzen direnean senideek ere badakitela zer gertatzen zaien. Hori landu beharra dago.

**Garrantzitsua da hiritarrei deialdia luzatzea, alde kognitiboa lantzera anima daitezen?**
Hori da, arazorik ez baldin badute ere bai, prebentzioagatik. Badago jendea despiste edo ahazte txikiengatik, ezer diagnostikatu aurretik, garuna lantzera animatzen dena. Mirestekoa da hori. Gorputza lantzea bezain garrantzitsua da.

**Gizartearen aldaketek, eta daramagun bizitza erritmoak eragina dute gaixotasun horietan?**
Jakina eragina dutela. Eta aurreikuspenak beldurgarriak dira. Estresak, presioak eta abarrek eragin handia dute iktusen edo garunean min egiten duten beste gaixotasunen agertzean.

**Irungo La Salle LH1**




Irungo La Salle LH 2. maila

Nora Arana eta Aitor Martín

## El Pilar LH3

### TXISTEAK

Mutiko bat zinemara doa eta sarrera saltzaileak esaten dio:

-Aizu zure bosgarren aldia da sarrera erosten duzula!

Mutikoak erantzuten dio:

-Zinemako tuntunak sarrerak puskatzen dizkidalako!

**Zergatik dago mateko liburua negarrez?**

**Problemak dituelako.**

Behin, gaileta bat mendian zebilela, hala esaten zuen:

-Gaileta bat naiz, gaileta bat naiz, gaileta bat naiz!

Ehiztari bat agertu zen eta eskopetarekin tiro egin eta zulo bat egin zion. Hortik aurrera, gailetak honela zioen:

-Erroskila bat naiz, erroskila bat naiz, erroskila bat naiz!

**Bazen behin, Pablito izeneko mutil bat, bere amarekin autobusera zihoala, amak esan zion.**

**-Pablito, hiru urte dituzula esan behar duzu, autobusa ez ordaintzeko.**

**-Baina ama, nik lau urte dauzkat!**

**-Zuk hori esan!**

**Autobusean, autobus gidariak:**

**-Aizu, zenbat urte dituzu?**

**-Hiru urte ditut.**

**-Eta noiz betetzen dituzu lau urte?**

**-Autobusetik jaisten naizenean.**

**EL PILAR IKASTETXEA (5.MAILA)**

# EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

S.R.A.ri andereari jasoa (1959 ekaina). (El Bidasoa, 1959-VII-17).

## Esaera zarrak

San Simón eta Júda
udá joán eta negúa eldú dá.

Burua aña lapúrr
eta Konsejuan aundiyenak.

O martxo martxo buztantxo
oantxe utzi nak ez ardi eta ez artantxo*

*(artantxo: urteko bildotsa.)

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

# Parte hartzaileagoa izango da Gazteartean

*Elkarteek eta hiritarrek proposamenak egin ahal izango dizkiete artistei*

Iazko esperientziaren ondoren, Gazteartean Expo erakusketa programari jarraipena emango dio Irungo Udalak. Inguruko artisten eta sortzaileen erakusketak antolatuko ditu Martindozenea Gaztelekuan, artistek beraiek zuzendutako tailerrekin batera. Hiriko gazteak artearen mundura hurbiltzeko saiakera izango da.

Berritasunak edukiko ditu, edonola ere, aurtengo programak, dinamika ireki eta parte-hartzaileagoa eskaini nahi izan baitu udalak. Programa kudeatzen duen GKO Galleryko Garikoitz Muruak eman ditu azalpenak: "Balorazio ona egin genuen iaz. Ikusi genuen jendea etortzen zela, eta tailerretan parte hartzen zuela. Baina ekimena handitu nahi dugu, nolabait". Aurten, hautatutako artistek egonaldi txikiak egingo dituzte Martindozenea Gaztelekuan, gero erakusketa eskainiko dute, eta erakusketa amaitzerakoan, tailerra emango dute.

Garikoitz Muruak azaldu du bizpahiru eguneko egonaldia egingo dutela artistek Martindozenean: "Erakusketa prestatzen egongo dira, alde batetik, baina era berean, kanpora begira egon daitezken proposamenei erantzuteko prest", azaldu du Muruak. Beraz, artistak Martindozenean lan egiten duen bitartean, alde batetik, interesa duen edonork prozesu artistikoan parte hartu ahal izango du. Bestetik, hiritarrei, elkarteei, entitateei eta bestelako kolektiboei, haien auzo eta kaleetan ekintza artistiko ezberdinak proposatzeko aukera emango die udalak. "Edonork, hirian zerbait landu nahi baldin badu, artistarekin harremanetan jartzeko aukera izango du, ideia hori proposatzeko".

> "Edonork, hirian zerbait landu nahi baldin badu, artistarekin harremanetan jartzeko aukera izango du, ideia hori proposatzeko"
>
> Garikoitz Murua, GKO Gallery

**Paperezko maketak, lehen erakusketan**

Jone Lizarralde artistak eskainiko du lehen erakusketa, irailaren 16tik urriaren 15era. Paperez eta kartoiz egindako maketak aurkeztuko ditu. Erakusketan egongo diren piezetako batzuk Martindozenean bertan egingo ditu, irailaren 13an, 14an eta 15ean izango den prozesu ireki batean. Erakusketan egongo diren maketa gehienek eraikin ezagunak irudikatuko dituztela azaldu du Lizarraldek: "Gure ingurukoa da gehien erakartzen nauena. Horregatik, Irungo eraikinak, edo Euskal Herriko beste lekuetakoak izango dira gehienak. Nazioarteko baten bat ere egongo da, hala ere".

> "Jendeak prozesuan parte hartu ahal izatea oso interesgarria iruditzen zait"
>
> Jone Lizarralde, artista

Erakusketa amaitzen den egun berean, urriaren 15ean, tailerra eskainiko du Jone Lizarraldek. Parte hartzera animatu nahi izan du jendea, eta beretzat esperientzia "onena" izango dela baieztatu du: "Jendeak prozesuan parte hartu ahal izatea oso interesgarria iruditzen zait". Paperezko maketak egiteko teknikak eta tresnak azaldu eta erakutsiko dizkie parte hartzaileei. Eraikin bat, eta inguruko pertsonaiak eta elementu osagarriak prestatuko dituzte, eta norberak eszena pertsonalizatzeko aukera izango du. "Haurrek haien jostailuak egiten ikastea oso ederra izan daiteke", adierazi du Lizarraldek.

Ilobei jostailuak eginez hasi zen, hain zuzen ere, paperezko maketen munduan. Publizitaterako ilustrazioak egiten ibilitakoa zen orduarako. Ilustrazioak hiru dimentsioko elementu bihurtu zituen, maketak osatzeko. Urtetako lana izan dela argitu du, eta proba eta esperimentu asko egin behar izan dituela. Nolanahi ere, pozik dago emaitzarekin: "Apaingarri gisa politak dira, eta xarma handia dute". Urriaren 15era arte ikus daitezke maketak Martindozenean, eta haiek egiteko prozesuaren berri izan nahi duenak, egun horretan Jone Lizarraldek eskainiko duen tailerrean izango du aukera.

**Gazteartean Expon parte hartuko duten hurrengo artistak:**

Mikel Etxeberria: Graffitia.

Marcos Navarro: Ilustrazioa.

## Irungo Gazte Bideoaren XX. lehiaketa 2016

**Zer?**

3 lehiaketa antolatu dira:

**Sail ofiziala:** Bideoz egindako film laburrak

**Bidasoa Eskualdea:** Eskualdeko zuzendariek egindako lan nabarmenak hautatzea. Edozein nazionalitatetako zuzendariak. Gehienez, 2 film labur aurkeztu ahalko dira. Soilik fikziozko film laburrak onartuko dira, edozein hizkuntzatan, film bakoitzaren gehienezko iraupena: 20 minutukoa.

**Film labur gehiago saila:** 15 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendua. Interesatzen zaien edozein gairi buruzko sorkuntzazko ikuspegia adierazten dutenak, esperientziak, iritziak, proposamenak edo iradokizunak partekatzeko.

Parte-hartzaileek egindako lanak, zuzendariari interesatzen zaion edozein gairi buruzko sorkuntzazko ikuspegia, proposamenak edo iradokizunak adierazten dutenak.

Gaia librea izango da: lan esperimentalak, bideoklipa, bideo art, animazioa, stop motion...

Hauek erabili ahalko dira: bideo-kamera, argazki-kamera, mugikorra, web kamera, eta abar

**Epea:** Urriak 7.

**Bidalketa:**
www.clickforfestivals.com

## Erabili euskara

**Zer?** lanean, ikasketetan, sare sozialetan, erosketetan, familian, lagun artean, jaietan.

**Udal Euskaltegia 2016/17 ikastaroa:**
Izen-emateak: irailaren 21era arte.

**Lannahi. Doako euskara ikastaroak langabeentzat:**
Izen-emateak: irailaren 21era arte.

**Euskara ikasteko edo hobetzeko bekak:**
Izen-emateak: urriak 16.

## Informa zaitez sexu seguruari eta arriskuei buruz

Gehitu elkarteak, egiten ari den prebentzio kanpainaren barruan, Irungo IGazten ? “G gunea” izeneko informazio gune bat instalatu du.

Bertan, edozein herritarren eskura jartzen da STI gaixotasunen prebentziorako informazioa, baita horretarako bitartekoak ere.

Sexu seguruari eta arriskuei buruzko prebentzio material horiek guztiak (preserbatiboak eta lubrifikatzaileak) eta LGTB kolektiboko beste batzuk (GEhitu Magazine) doan dira eta herritarren eskura daude.

G gunea Irungo Gazte informazio Bukegoan egoteaz gain, Tolosako Gazte Bulegoan, eta Donostiako Koldo Mitxelena Liburutegian ere instalatu da.

Gainera, jaso informazioa GIB antzemateko proba azkarraz eta test hori Euskal Herrian eta Irunen egiten duten farmaziez.

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

## “Know your roots” Gazte elkartrukaketa Bulgarian

18tik 30 urtera bitarteko adina al duzu? Nahi zenuke munduan zehar ibili eta beste herrialde batzuk modu desberdin batean ezagutu?
Bulgaria ezagutzeko aukera duzu, “Know your roots” proiektuaren bitartez. Ezagutu Europa Ekialdeko herrialde hau eta aldi berean lortu itzazuYouthpass ziurtagiriak onartutako konpetentzia berriak zure curriculumerako.

**Data:** urriaren 15etik 22ra.

Proiektua Europako Batzordeak eta Erasmus + Programak finantzatzen dute. Barne daude: bidaiak, ostatua, mantenua, mediku-asegurua eta poltsikoko dirua hilero.

**Informazio gehiago nahi duzu?**: Pasa zaitez Irungo Nazioarteko Mugikortasun Zerbitzutik / “I Europe” postua, Irungo CBA (San Juan plaza, -1.go solairua). Astelehenetik ostegunera 17:00etatik 19:30etara, asteartean 10:00etatik 14:00etara.

sartu www.txingudionline.com-en eta ezagutu hobeto zure hiria
Erreala munduan, Kirolan, Desde nueve metros, #estapasando, La Banatua, Ocurrió, Pásalo de cine, Historias del Bidasoa, Zaboga, Kirolan, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Ponte en forma

txingudionline.com
HENDAIA IRUN HONDARRIBIA
#estapasando, La Banatua, Ocurrió, Pásalo de cine, Historias del Bidasoa, Zaboga, Kirolan, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Ponte en forma, Erreala munduan, Kirolan, Desde nueve metros
berriak, erreportajeak, historia, kirolak, hurbiltasuna, eztabaidak
Zaboga, Kirolan, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Ponte en forma, Erreala munduan, Kirolan, Desde nueve metros, #estapasando, La Banatua, Ocurrió, Pásalo de cine, Historias del Bidasoa

## Irailak 16

**Zer?** Tailerra: Erregistra zaitez enplegu eskaintzak dituzten orrialdeetan (Infojobs, Infoempleo, ABL enpresak...)

**Non?** El Espazio, Anaka 27.

**Ordutegia?** 9:30-12:30.

**Prezioa:** doan.

**Izen-ematea:** www.elespazio.com.

## Irailak 16

**Zer?** Kontzertua-Irun Zuzenean: Rubio, El Octavo Arbol eta Mystic Pop.

**Non?** Urdanibia plazan.

**Ordua?** 20:00.

**Prezioa:** doan.

## Irailak 17

**Zer?** Ingelesezko ipuina-antzerkia haurrentzat (3-7 urte).

**Non?** CBA Udal Liburutegian.

**Ordua?** 11:00-12:00.

**Prezioa:** doan.

## Irailak 17

**Zer?** Dantza Hirian Jaialdiko emanaldia..

**Non?** Justizia Jauregia (Jose Ramón Amunarriz plaza).

**Ordua?** 17:30.

## Irailak 17

**Zer?** Meaka Auzo Elkarteak eta Meakako Festak elkarteak liburu azoka antolatu dute.

**Non?** Meakako auzo elkartean.

**Egitaraua:**
11:00 Liburu azoka
11:30 Eskulanak
12:00 Xaguaren ipuina (Ondare Kultur Elkartearen eskutik).
12:30 Topaketa idazleekin.
17:00 Idazketa tailerra.
17:30 Eskulanak.
18:15 Xaguaren ipuina (Ondare Kultur Elkartearen eskutik).
19:00 “El guardian de la palabras” haurrentzako filma.
21:00 “Oihaneko liburua” filma euskaraz emango dute.

**Prezioa:** doan.

## Irailak 18

**Zer?** Mugikortasunaren Europako Astea: Bizikleta Martxa eta Igande Sasoi.

**Non?** Colon Ibilbidea, Zabaltza plaza eta inguruak.

**Ordua?** 10:30etatik aurrera.

## Irailak 18

**Zer?** Santiagoko Kultur Astea.

**Non?** Santiago auzoan.

**Egitaraua?**
12:30-15:00: Paella lehiaketa eta herri bazkaria.
16:00-17:00: Postre lehiaketa.
18:00-20:00: Zumba.
18:30-20:00: Buruhandiak eta ur zezena.
19:30-21:00: Txokolatada.

## Irailak 22

**Zer?** “Historias en un puente” dokumentalaren emanaldia eta solasaldia.

**Non?** CBA Kultur Gunean.

**Ordua?** 18:00.

**Prezioa:** doan.

## Irailak 23

**Zer?** Girabira-Dantza.

**Non?** Sarjia parkean.

**Ordua?** 18:00-22:00.

**Prezioa:** doan.

HERRI JAKINTZA
euskaltegia

# IKASI EUSKARA
# HITZ EMAN EUSKARARI!

Maila guztiak
Hizkuntz eskakizunak
HABE titulu ofizialak
EGA | IVAP | IRALE
Guraso taldeak

%100 diruz lagundua

## Matrikula zabalik
## 2016/17

Matrikula:

11:00etatik - 13:00etara
17:00etatik - 19:00etara

Irunen, zuk euskaraz!

HERRI JAKINTZA
euskaltegia

HABE

Nafarroa hiribidea, 13 | IRUN (20302)

*Telefonoz ere matrikulatu* | 943-635-266

herrijakintza@gmail.com